

Ez dago aukerarik eskola segregazioari aurre egiteko itun soziala lortzeko

LABek iragarri du utzi egingo duela EAEko Hezkuntza Sailak *Eskola Bikaina Denontzat* izenarekin sorturiko mahaia.

Segregazio mahaiaren bosgarren bilera egingo da asteazkenean Gasteizen. Bertan, Hezkuntza Sailak eskola segregazioari aurre egiteko garatuko diren lan-lerroak eta proiektuak definitzeko fasea landuko dela dio, baina ez du lanketarako inolako proposamenik aurkeztu. Berriro ere inprobisazioa izango da nagusi, eta sailaren helburua eguneko argazkia ateratzea izango da.

Hezkuntza sistemaren arazo nagusietakoa den eskola segregazioaren gaiari ausardiaz heltzeko baino, EAJk eta PSEk onartutako Hezkuntza Legean jasotako neurri orokorrez hitz egiteko foroa bilakatu da mahaia; konplexutasunari eta neurri konkretuei ez zaie heldu nahi izan. LABek foro horretan diagnostikoari ekarpenak egin dizkio, eta neurri zehatzei lotutako proposamenak aurkeztu ditu. Foro horretan parte hartu du borrokarako beste eremu bat gehiago izan delako, eta ikastetxeetan egin duen zein egiten ari den lanketari edota mobilizazioen bitartez egiten duenari batu zaio lan hori. Alabaina, mahaian egondako inprobisazioak, diagnostikoa onartzeko aldeakartasunak, eduki eta neurri errealez ez hitz egiteak eta foroa Hezkuntza Legea ontzat emateko baliatzeak LAB erabaki berri batera eramane du: mahaia uzteko erabakia hartu du.

LABek uste du ez dagoela aukerarik mahai horretan eskola segregazioari aurre egiteko beharrezkoa den itun soziala lortzeko; ez dago baldintzarik zerbait egiten delako sentsazioa emateko sorturiko mahai horretan. Tamalez, baieztatu daiteke ez dela konplexua den gai batean itun sozial bat lortzeko lan egiteko asmoarekin sorturiko mahaia izan. Gainera, langileen ordezkarien gehiengoarekin adostu behar den gaia izanik, bertan landutakoak irakaskuntzako mahai sektorialetan landu eta adostu behar direla eskatu izan du LABek, ez baitago segregazioaren kontrako itun sozialik langileen gehiengorik gabe.

Sistema bera, segregazioaren oinarrian

Segregazioa sistema kapitalista, heteropatriarkal, kolonial, arrazista eta ekoizida honen beste tresna bat da. Nola funtzionatzen duen ulertzeko eta horri aurre egin ahal izateko, testuinguru sozioekonomikoari, egoera demografikoari eta hezkuntza politikei begiratu behar zaie. Euskal Herrira bizitzera iristen diren pertsona askorentzat migrazioa bizirik irauteko estrategia bat da. Eta, zentzu horretan, eskola funtsezko espazioa da edo izan beharko luke, errekonozimendurako eta aukera berdintasunerako.

Hala ere, horretatik urrun, segregazioa diskriminazioaren eta aukera desberdintasunaren aterkia da. Olatu erreakzionarioa ikasgeletara iritsi da, eta hor gero eta matxismo, arrazakeria, homofobia eta xenofobia handiagoa dago.

Testuinguru horretan ulertu behar ditugu eraso euskarafoboak ere. Euskara oso une zaurgarrian dago, larritasun egoera batean. Eskola segregazioa gaingintzeko borrokak euskarari arnasa emateko borroka

ere izan behar du. Euskara eskubide kolektibo, eskuragarri eta bermatu gisa, haur migratzaileentzat aukera berdintasunerako eta gizarte, auzo eta herri kohesionatuago bat eraiki ahal izateko aukera da.

Hezkuntza eredua ez da neutrala. Eragin esanguratsua du haurren eskolaratzean, nola eta zertarako eskolatzen diren. Dauden arrakala sozialak betikotu ez ezik, sakondu ere egiten ditu. Hori da eta horretarako balio du, hain zuzen, eskola segregazioak.

Ukaezina da desoreka handiak sortzen dituela ikastetxeen artean, eta, egoera horretan, Jaurilaritzak bideraturiko hezkuntza eta hizkuntza politikek eskola segregazioa areagotu besterik ez dute egin:

- Ez dago eskolatze orekatua eta haurren euskalduntzea bultzatzen duen hizkuntza politikarik. Gurera etortzen diren gurasoei ez zaie behar bezalako informaziorik ematen euskalduntzearen garrantziaz eta euskalduntzeko dituzten aukerez, eta ez dituzte haurrak D ereduan matrikulatzera animatzen.
- Eskola segregazioaren arrazoen artean sistemaren antolaketa dualak eragina duela jaso du diagnostikoak, baina horrekin batera legez debekaturik dauden kuoten kobrantzak eragin zuzena du. Hezkuntza Sailak, gaur-gaurkoz, ez du kuota horien auditoretza egin, kuoten kobrantza datuak ez ditu gardentasunez publiko egin eta kuotak debekatzeko planifikaziorik ez dago.
- Doako ikasketak eskaintzen ditu eskola publikoak —hezkuntza sistemaren % 50,8 da— eta oraindik kuotak kobratzen dituzte sare itunduan gizarte ekimeneko ikastetxeek —% 39,5— eta ikastolek —%9—. Alabaina, ikastolen kasuan, doakotasunaren bidean urratsak ematearekin batera, egoera zaurgarrian dagoen ikaslerik kanpoan ez geratzeko beka sistema bat abian jarri dute.
- Ikaspostuen gaineskaitza egoeran gaude, eta horrek bestelako eskola planifikazio bat eskatzen du. Horregatik, era orokortuan D ereduko sare publikoa erdigunean jartzeko politika eta neurriak behar dira, eta modu deszentralizatuan tokian toki erabakiak hartzea ahalbidetu behar da, D eredukoak eta laikoak ez diren ikaspostuak murriztetik hasiz.
- Hizkuntzagatik gertatzen den segregazioari heldu behar zaio. Izan ere, Hezkuntza Legeak esaten duen arren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean ikasleek euskarazko B2 maila eskuratu behar dutela, gaur-gaurkoz, eta hizkuntza ereduak mantentzen diren bitartean, hori ez da horrela. Funts publikoak jasotzeko bete beharreko betekizuna izan behar da.

Horrek guztiak hainbat ondorio ditu, eta desberdintasun sozioekonomikoak iraunarazi ez ezik, areagotu ere egiten ditu; eskola publikoaren azpifinantzazioa bultzatu du, eta haren kalitatean eragiten du. Horrez gain, euskararen ezagutza eta horren bermerako euskarazko murgiltze ereduaren hedapena zailtzen du.

Hortaz, eskola mapan dauden desorekak gainditu egin behar dira, desoreka horiek, goian aipaturiko ondorioez gain, klasismorako eta arrazismorako joerak indartu baititzaizkete. Horregatik, LABek gizarte kohesioaren alde egiten du eta hor euskarak inklusio sozialerako tresna garrantzitsua izan behar duela aldarrikatzen du.

Bukatzeko, LABek gogorarazi nahi du eskola- egregazioari aurre egiteko neurri zehatzak proposatzen zituen dekalogoak publikoki aurkeztu zuela, eta bertan proposatutako neurriak lantzen eta borrokatzen jarraituko duela.

No hay posibilidad de llegar a un pacto social para hacer frente a la segregación escolar

LAB anuncia que abandonará la mesa creada por el Departamento de Educación de la CAV con el nombre *Eskola Bikaina Denontzat*.

El miércoles se celebrará en Gasteiz la quinta reunión de la mesa de segregación. El Departamento de Educación afirma que se trabajará la fase de definición de líneas de trabajo y proyectos que se desarrollarán para hacer frente a la segregación escolar, pero no ha presentado ninguna propuesta de trabajo. Nuevamente imperará la improvisación y el objetivo del Departamento será sacarse la foto del día.

En lugar de afrontar con valentía la segregación escolar, uno de los principales problemas del sistema educativo, la mesa se ha convertido en un foro para hablar de las medidas generales recogidas en la Ley de Educación aprobada por PNV y PSE, y no se ha querido abordar la complejidad ni las medidas concretas. En este foro, LAB ha presentado aportaciones al diagnóstico y propuestas vinculadas a medidas concretas. Ha participado en dicho foro porque ha sido otro ámbito de lucha más, que se ha sumado al trabajo que ha realizado y está realizando en los centros educativos y al que está llevando a cabo a través de movilizaciones. Sin embargo, la improvisación que ha habido en la mesa, la unilateralidad a la hora de aprobar el diagnóstico, el hecho de no tratar contenidos y medidas reales y aprovechar el foro para dar por buena la Ley de Educación ha llevado a LAB a tomar una nueva decisión; va a abandonar la mesa.

LAB cree que no hay posibilidades para que en dicha mesa se consiga el pacto social necesario para hacer frente a la segregación escolar; no hay condiciones en esa mesa creada para dar la sensación de que se está haciendo algo. Por desgracia, se puede confirmar que no ha sido una mesa creada con la intención de trabajar para conseguir un pacto social en un tema complejo. Además, tratándose de un tema que a nuestro entender hay que acordar con la mayoría de representantes de las y los trabajadores, LAB ha reclamado que lo que se trataba en la misma se debía trabajar y acordar en las mesas sectoriales de enseñanza, ya que no hay ningún pacto social contra la segregación sin la mayoría de trabajadoras y trabajadores.

El propio sistema, en la base de la segregación

La segregación es un instrumento más de este sistema capitalista, heteropatriarcal, colonial, racista y ecocida. Para entender cómo funciona y poder hacerle frente tenemos que mirar el contexto socioeconómico, la situación demográfica y las políticas educativas. Muchas de las personas que llegan a vivir a Euskal Herria, encuentran en la migración una estrategia de supervivencia. En este marco, la escuela es o debería ser un espacio clave: para el reconocimiento y la igualdad de oportunidades.

Sin embargo, lejos de esto la segregación es el paraguas para la discriminación y la desigualdad de oportunidades. La ola reaccionaria ha llegado a las aulas, dónde se permea cada vez más machismo, racismo, homofobia y xenofobia.

En este contexto también debemos entender los ataques euskaráforos. El euskera está en un momento muy delicado, en una situación de angustia. La lucha por superar la segregación escolar debe ser también una lucha por dar aliento al euskera. El euskera como derecho colectivo, accesible y garantizado, para las y los niñas migrantes es una oportunidad para la igualdad de oportunidades y para poder construir una sociedad, unos barrios y pueblos más cohesionados.

El modelo educativo no es neutral. Incide de forma significativa en cómo y para qué se escolariza a la infancia. Las brechas sociales existentes no sólo se perpetúan sino que se profundizan. Eso es y para eso sirve la segregación escolar.

Es innegable que crea grandes desequilibrios entre centros educativos y en esta situación, las políticas educativas y lingüísticas llevadas a cabo por el Gobierno Vasco no hacen más que incrementar la segregación escolar:

- No existe una política lingüística que favorezca la escolarización equilibrada y la euskaldunización de los niños. A los padres y a las madres que vienen a lo nuestro no se les informa suficientemente de la importancia de euskaldunizar y de las posibilidades que tienen de hacerlo, no animan a los niños a matricularse en el modelo D.
- El diagnóstico recoge que, entre las razones de la segregación escolar, la organización dual del sistema es un elemento que influye, pero junto con ello, el cobro de cuotas que están prohibidas por ley tiene una influencia directa. A día de hoy, el Departamento de Educación no ha realizado una auditoría de dichas cuotas, no ha hecho públicos datos sobre su cobro con transparencia y no existe una planificación para prohibir las cuotas.
- La escuela pública que ofrece estudios gratuitos, el 50,8%; y la red concertada en la que todavía se cobran cuotas, por un lado, los centros de iniciativa social, el 39,5%, y por otro, las ikastolas, con el 9%. Sin embargo, en el caso de las ikastolas, junto con dar pasos hacia la gratuidad, se ha puesto en marcha un sistema de becas para que ningún estudiante en situación de vulnerabilidad se quede fuera.
- Estamos en una situación de sobreoferta de plazas educativas y esto exige otro tipo de planificación escolar. Por ello, hacen falta políticas y medidas para situar en el centro la red pública de modelo D de manera generalizada y se debe posibilitar tomar decisiones de forma descentralizada en cada lugar, empezando por reducir plazas educativas que no sean de modelo D ni laicas.
- Se debe abordar la segregación por idioma. De hecho, aunque la Ley de Educación señale que al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria el alumnado tiene que conseguir el nivel B2 en euskera, hoy por hoy y mientras se mantengan los modelos lingüísticos esto no es así. Tiene que ser un requisito a cumplir para recibir fondos públicos.

Esto tiene varias consecuencias y además de perpetuar diferencias socioeconómicas, también las incrementa; ha fomentado la infrafinanciación de la escuela pública y afecta a su calidad. Además, dificulta el conocimiento del euskera y la extensión del modelo de inmersión en euskera para garantizarlo.

Por lo tanto, hay que superar los desequilibrios que se dan en el mapa escolar, ya que estos, además de las consecuencias mencionadas con anterioridad, pueden reforzar las tendencias al clasismo y al racismo. Por eso, LAB apuesta por la cohesión social y reivindica que el euskera tiene que ser una herramienta importante para la inclusión social.

Para terminar, LAB quiere recordar que presentó de forma pública un decálogo que proponía medidas concretas para hacer frente a la segregación escolar, y que seguirá trabajando y luchando por las medidas que propone en la misma.